

## Aldaketa klimatikoa, sindikatuak eta ezkerraren ajenda bateratua

NAOMI KLEIN

# “Gainkarga”, klima-aldaketa, sindikatuak eta ezkerren agenda bateratua

NAOMI KLEIN

Handia izatea zer den .....	3
Elkarren beharra dute mugimenduek .....	5
Geure proiektu propioa behar dugu .....	6
Estraktibismoa .....	7
Klima-aldaketa: ez dezagun beste alde batera begiratu .....	8
Martxan da jada klima-aldaketa .....	9
Klima-aldaketan dago eskatzen dugun guztiaren muina .....	10
Aktibismo “klimatikoa” = ezkerren agenda .....	10
Nola ordaindu .....	12
Merkataritza .....	14
Kanadako jatorrizko nazioak .....	16
Gainkarga .....	17

Testu originala [www.commondreams.org](http://www.commondreams.org) web orrian argitaratua izan da ingelesez



**Dokumentuak 26**

*2013ko azaroa*

[www.mrafundazioa.org](http://www.mrafundazioa.org)

@mrafundazioa

---

# “Gainkarga”, klima-aldaketa, sindikatuak eta ezkerraren agenda bateratua

Naomi Klein

Ohore handia da niretzat zuekin partekatzea egun hau, hain garrantzitsua. Kutsakorrek dira, bestalde, areto honetan nabari diren energia eta sindikatu berri honen sorrerak eragindako itxaropena.

Hauxe izan daiteke denok espero genuen kontraerasoaren hasiera, Harper agintetik kendu eta boterea Kanadako langileei itzultzen hasteko unea.

Honenbestez, ongi etorri mundura, UNIFOR!\*

Komunikabide gehienek aipatu dute UNIFORen tamaina handia. Kanadako sindikatu pribaturik handiena da, izan ere. Bada, oso lagungarri izan daiteke handi izate hori, batez ere langileek hainbeste eraso jasaten dituzten herrialde honetan. Kontuz, ordea! Handia izateak ez du esan nahi garaipena ziurra denik.

Zenbait baldintza bete beharra dago garaile izateko: plan eta amets handiak sortzeko bilgune bihurtu behar da eratu berri duzuen plataforma erraldoi hau, aldarrikapen garrantzitsuak plazaratzeko eta ekimen ausartak bultzatzeko elkargune. Langileen irudimena suspertzeko gai izan behar du plataformak, lortu daitekeen guztiaren kontzeptua aldarazteko gai.

## Handia izatea zer den

“Handia izateaz” hitz egin nahi dizuet, hain zuzen ere. Beharbada, zuetako batzuek gogoratuko duzue Shockaren doktrina izeneko liburu bat plazaratu nuela orain urte batzuk. Liburu hartan nioenez, azken 35 urteotan, korporazio handien interesek sistematikoki baliatu dituzte krisi orokor guztiak (ekonomiaren kolapsoak, hondamendi naturalak, gerrak...) elite txiki

---

\* Sindikatu berria da UNIFOR, Kanadako automobilgintzako eta energia- eta paper-sektoreetako sindikatuen batura. Naomi Kleinek (idazlea eta kazetaria) 2013ko irailaren 1ean hitz egin zuen, Toronton, UNIFORen sorrera-biltzarrean.

baten aldeko politikak ezartzeko. Bide batez, lortutako erregulazio guztiak bertan behera utzi dituzte, gastu soziala murriztu egin dute eta ahal izan duten gutzia pribatizatu dute.

UNIFORren helburuak zehazteko Jim Stanfordek eta Fred Wilsonek idatzi duten artikulua dioenez, “shockaren doktrinaren” adibide tipiko bat dira Kanadako eta mundu osoko langileek gaur egun pairatzen dituzten erasoak.

Ugariak dira adibideak: Greziako funtzionarioen soldata-jaitziera eta kaleratze masiboak, Detroiteko langileen pentsio-funtzen aurkako erasoak (aurrez prestatutako porrot baten beste urrats bat), edo, Kanadan bertan, Harperren gobernuaren jokabidea, hau da, bere porrot politikoen errua sindikatuei egozte.

Ez dut denborarik alferrik galduko zuei azaltzen zein sasoiko dabilen jokabide itsusi hori, alegia, etekin pribatuak lortzeko beldur publikoaz aprobetxatzea. Ondo asko dakizue, zeuok ari baitzarete jasaten. Beste zer bat azaldu nahi nuke nik: nola egin aurre taktika maltzur horri.

Argi hitz egingo dut: liburu hura idatzi nuenean, uste nuen jokabide hori menderatzeko aski zela, batetik, nola funtzionatzen zuen jakitea eta, bestetik, haren aurka mobilizatzea. Goiburu bat ere bagenuen: “Information is shock resistance. Arm yourself” (“Informazioa da shockaren aurkako armarik onena. Erabil ezazu”).

Baina, aitortu dezadan, oker nengibilen: ez da nahikoa zer gertatzen ari den jakitea, kontatzen digutena ez onartzea eta politikariei zein banku-



jabeei esatea: “Zuek eragin duzue krisia, ez guk”, edo “Ez, ez dugu porrot egin; zuek ari zarete eskuratzen diru guztia”. Egia da hori guztia, baina ez da nahikoa.

Ez da aski, bestalde, kalean milioika lagun elkartzea “haien krisia guk ez dugula ordainduko” oihukatzerara. Egia da austeritatearen aurkako mobilizazio masiboak ikusi ditugula Grezian, Espainian, Italian, Frantzian eta Britainia Handian; Wall Street, Bay Street eta beste kale asko jendez bete ditugu..., baina, hala eta guztiz ere, erasoka ari zaizkigu.

Ahaltsu diraute azken urteotan sortu diren mugimendu berri batzuetako batzuek; beste asko, ordea, sortu, itxaropen handiak eragin... eta desageritu edo itzali egiten dira. Erraz ulertzeko modukoa da horren zergatia: alor kolektiboaren eta langileen eskubideen aurkako hogeita hamar urteko gerra baten hondakinen artean antolatu nahian gabilta, eta kalean manifestari dabiltzan gazteak dira gerra horren haurrak.

Hain izan da erabatekoa gerra, hain izan da arrakastatsua, ezen, askotan, zer heldurik ere ez baitute gizarte-mugimenduek. Elkartzeko, parke bat edo plaza bat okupatu behar izaten dute; edo oinarri ahaltso bat sortzen dute eskoletan, baina, hain iragankorra izaki, urte gutxiren buruan desegiten da.

Iragankortasun horrek bihurtzen ditu mugimenduok hain suntsierraz: batzuetan, nahikoa da zain egotea, mugimendua desageritu arte; beste batzuetan (gehiegitan) Estatuaren indarrak desegiten ditu.

Horregatik sortu du horrenbesteko itxaropena UNIFOREn sorrerak eta gizarte-mugimenduak berpizteko haren asmoak, sindikatu handi bat erakitz eta, horrekin batera, mugimendu sozialen sare zabal eta ahaltsoa eratu.

## **Elkarren beharra dute mugimenduek**

Elkarren beharra dute, bai, gure mugimenduek, ekarpen handiak egiten baitituzte: jende asko eta asko mobilizatzeko gaitasuna, benetako aniztasuna, arrisku handiak berenganatzeko borondatea, antolakuntza-modu berriak, sakon-sakoneko demokraziarekiko konpromisoa ere barne dela.

Baina mugimendu horiek zuen beharra ere badute: zuen indar instituzionala, zuen tradizio erradikala, eta (beharbada, eta batez ere) zuen “aingura” behar dute, nora ezean ez jarraitzeko. Zuen beharra dugu, gure zuzendaritza iraunkorra izan zaitezten, gure oinarria, hurrengo batean gu desegitea ezinezkoa izan dadin.

Zuen antolakuntza-gaitasuna ere behar dugu. Elkarrekin pentsatu behar dugu nola eraiki, neoliberalismoaren hondakinen artean, egitura kolektibo sendoak. Hasiera bikaina da, bide horretan, “community chapters” deritzen horiek (gizarte-alorrak) sortzeko zuen ideia berritzaile hori.

Gogora dezagun bestalde, ez direla hutsetik abiatzen ari. Izan ere, talde handi bat elkartu zen duela urtebete inguru Port Elgineko Batzarrean, eta “Making waves” (Olatuak sortzen) deritzon agenda abiarazi zuten.

Prozesu horren mezurik nagusia, nire ustez, hau izan behar du: buruzagien arteko akordio bertikal hutsak baino zerbait gehiago izan behar dute gure arteko koalizioek; behetik gora egin behar da aldaketa, kide guztien partaidetza osoarekin.

Horretarako, hezkuntzan inbertitu behar dugu, egungo egoera honetara ekarri gaituzten arrazoi ideologikoen eta egiturazkoen azterketa egin behar dugu. Mundu berri bat eraikitzeko, zimendu irmoak behar ditugu.

Horrez gain, kalera irten eta aurrez aurre hitz egin behar diogu jendea-ri, komunikabideei, afiliatuei..., gure proposamenak indar berria eman diezaie.

Beste gauza bat ere aipatu behar dut, Shockaren Doktrinaren aurka garaipen handiak lortzen uzten ez digun arrazoi bat.

### **Geure proiektu propioa behar dugu**

Austeritate-agendaren kontrako erresistentzia masiboa egon arren, egoera honetara nola iritsi garen ulertu arren, bada neoliberalismoaren aurkako ekimen kolektibo bat eragozten duen arrazoi bat. Uste dut badakidala zein den arrazoi hori: ez dugu erabat sinesten neoliberalismoaren ordeztu zerbait eraiki daitekeenik. Izan ere, desarauketa, pribatizazioa eta murrizketak dira nire belaunaldiak eta hurrengoak ezagutu eta ezagutuko dugun guztia.

Eskarmentu eskasa dugu gauza berriak amesten eta sortzen; aitzitik, handia geure burua defendatzen. Nire iritzian, hor dago Shockaren Doktrinaren aurka jarduteko giltzarria.

Ezin gara mugatu munduaren antolamenduari buruzko diskurtso nagusiari uko egitera: geure diskurtso propioa behar dugu, gure ustean gauzak nola antola litezkeen azaldu behar dugu.

Ezin gara mugatu haien gezurrak ez onartzera: egia kementsuak behar ditugu, haien gezurrak hauts bihurtzeko modukoak. Ezin gara mugatu haien proiektuari uko egitera: geure proiektu propioa behar dugu.

---

Ezagutzen dugu Stephen Harperren proiektua: ideia bakar bat du (bat bakarrik) gure ekonomia funtzionarazteko.

Harperren ideia bakarra:

Zanga-mordoa egitea, gasbide-piloa eraikitzea; hodietatik irteten den produktua itsasontzietan —edo kamioietan, edo trenetan— kargatzea eta beste norabait eramatea, findu eta erre dezaten. Prozesua errepikatzea, baina lehen baino azkarrago, bestela bakarren bat ohartu egingo baita horixe duela ideia bakarra, ekonomia-kudeatzaile arduratsuaren itxurak egiteko balio izan diona, ekonomiaren gainerako alor guztiak hondorutzen ziren bitartean.

Horregatik da hain garrantzitsua gobernu honentzat gas- eta petrolio-ekoizpena areagotzea, abiadura izugarrian gainera, eta horregatik dabil su eta gar aurka egiten dion edonoren aurka, hau da, ekologisten Kanadako jatorrizko nazioen eta beste komunitate batzuen kontra.

Horrexegatik, hain zuzen ere, dago prest Harperren gobernu herri honetako oinarri industrialak suntsitzeko, langileen aurka gogor jardunez eta haien oinarritzko eskubideei eraso eginez.

Kontua ez da baliabide jakin batzuk eraztea. Harperren ikuspegia “estraktibismoa” deritzon horren muturreko bertsio bat da (beste batzuetan, “kapitalismo” deitzen diot, besterik gabe).

## **Estraktibismoa**

Honetan datza ikuspegi honen mundu-ikusketak: baliabideak erazi eta erazi naturatik, ezer itzuli gabe, baliabideak amaigabeak balira bezala, langileek erazi dezaketen horrek mugarik ez balu bezala, gizartearen kontsumo-ahalmenak eta munduak eskain diezagukeenak mugarik ez balute bezala.

Erauzketaren ideologiarentzat (estraktibismoa) eskulana (zuek, alegia) merkantzia bat besterik ez da (asfaltoaren antzera), eta ahalik eta etekin handiena atera behar zaio, osasunari, familiari, gizarte-egiturari, giza eskubideei... eragiten dizkien albo-kalteak aintzat hartu gabe.

Krisiak gogor jotzen duenean, hortaz, konponbide bakarra dago, ideologia honen arabera: gehiago eta azkarrago eraztea baliabideak, alor guztietan.

Horra bere diskurtsoa, harrapatuta gauzkana, gure aurka arma gisara erabiltzen dutena. Garaitu nahi baldin baditugu, geure diskurtsoa eratu beharra daukagu.

**Klima-aldaketa: ez dezagun beste alde batera begiratu**

Honenbestez, ikuspegi basati horren aurka inoiz eraiki dugun diskurtso alternatiborik sendoena azaldu nahi dizuet.

Hona hemen: egungo eredu ekonomikoak langileei, gizarteei, zerbitzu publikoei eta gizarte-segurantzaren egiturei egiten die kalte. Horrez gain, baina, gure mundu honetako bizitzaren euskarriak ere kaltetzen ditu.

Klima-aldaketarena ez da kezkatu beharreko gauzen zerrendan sartu beharreko beste "gai" bat bakarrik: zibilizazio bat esnarazteko aldarri bat da, mezu indartsu bat. Izan ere, suteek, uholdeek, ekaitzek eta lehorteek garbi adierazten digute beste ekonomia-eredu bat behar dugula, berria erabat, justizia eta iraunkortasunean oinarritua.

Hondamendi horiek guztiek adierazten digute eman ere egin behar dugula zerbait hartzen badugu, muga batzuk ez direla gainditu behar, gure osasunaren geroa ez datzala putzu gero eta sakonagoak egitean, geure baitara sakonago jotzean baizik, denon geroa DENON artean eraiki behar dugula ohar gaitezen.

Amaitzeko, ORAIN egin behar dugu trantsizio hori: atmosferara zabal-tzen ari garen emisioak neurri gabe ari dira hazten, eta ez zaigu denbora askorik geratzen.

Badakit klima-aldaketarena ez zaizuela gai atsegina irudituko erauzke-ta-industrietan edo karbono-emisio ugari sektoreetan (automobilgintza, hegazkingintza...) ari zareten langileoi; badakit, hala ere, ez duzuela ukatzen gertatzen ari dena (Estatu Batuetako lankideek ez bezala), eta zuen aurreko bi sindikatuek ingurumen-politika ugari zituztela.

Ez da egun batetik besterako aldaketa izan, bestalde: 1990eko hamar-kadatik ari da borrokatzen CEP (ausardiaz, gainera) Kyotoko protokoloen alde; CAW, berriz, lehenagotik ere ari da merkataritza libreko itunek ekarri duten ingurumen-suntsiketari aurre egiten; CEPko presidentea, Dave Coles, atxilotu egin zuten Keystone XL gasbidearen aurka protestaka ari zela. Ekintza heroikoa izan zen hura.

Baina, nola esan inor mindu gabe...; klima-aldaketaren gaia ez da inoiz izan zuen afiliatuen gogokenetakoa.

Ulertzen dut, hein batean, afiliatuen jarrera: ni ere ez naiz ekologista. Justizia ekonomikoa aldarrikatu dut beti, bai gure herrirako bai nazioarte-rako; Munduko Merkataritza Erakundearen aurka borrokatu naiz, ez izur-deen bizimoduan duen eraginagatik, baizik eta gizakiengan eta gure demokrazian duenagatik.

---



Azaldu nahi dizuedana hau da: klima-aldaketaren gaia da mugimendu aurrerakoiek inoiz izan duten tresnarik ahaltsuena berdintasunaren eta justizia sozialaren alde jarduteko, betiere gaiaren alderdi ekonomiko eta moral guztiak aintzat hartzen badira.

Lehenik eta behin, ordea, klima-aldaketaren arazoaren aurrean utzi egin behar diogu ez ikusiarena egiteari, ekologistei bakarrik balegokie bezala, eta sakon aztertu behar dugu. Ohartu beharra daukagu gure gizartearen oparotasuna ekarri zuen iraultza industrialak koloka jartzen ari dela bizitzaren euskarri ditugun sistema natural guztiak.

Ez zaituztet aspertuko zenbakiekin, baina gogoratu behar dizuet zer dioen Mundu Bankuak: lau gradu beroagoa izango da laster mundua. Energiaren Nazioarteko Agentziak —ekologista erradikalen elkarte bat izatetik urruti dagoen erakundea, jakingo duzue— dio, bestalde, oso baikorra dela Bankua, eta sei gradukoa izango dela berokuntza mende hone-tan, eta horrek “ondorio katastrofikoak ekarriko dizkigula denoi”. Eta motz geratu dira denak: oraindik ez gara iritsi gradu bateko berokuntza-mailara, eta ikusi besterik ez dago zer ari den gertatzen.

## **Martxan da jada klima-aldaketa**

Groenlandiako izotz-plakaren % 97 urtzen ari zen joan den udan. Bill McKibbenek dioenez, gure luraren osagai nagusietako bat hartu eta suntsitu egin dugu.

Hor daude, bestalde, muturreko gertakari meteorologikoak. Beldurgarria izan da uda Fort McMurrayen (han nengoen ni): hiriko museo-ko objektu guztiak —hiriaren historia osoa— hara eta hona zerabiltzan urak.

Calgaryko erdialdea ilunpean zegoen bitartean —eta inoiz ikusi dudan uholderik larrienetako bati aurre egin nahian hiritarrak—, zenbait elkarrizketa egiten saiatu nintzen petrolio-konpainia handietako arduradunei, baina erabat hutsik zeuden haien egoitza nagusiak. Ezta NDP alderdia ere ez zen ausartu esatera klima-aldaketaren ondorio zela gertakari hura, eta askoz gehiago ikusiko ditugula petrolio-konpainiek orain arte bezala jarraitzen badute.

Geroz eta okerragoa da egoera; jada ez dute balio aitzakiek, eta ez du balio esateak klima-aldaketarena ez dela gure arazoa.

Klimaz arduratzeak ez du esan nahi alde batera utzi behar dugunik egi-ten ari garen guztia eta ekologista sutsu bihurtu behar dugunik. Ondo asko

dakit oso garrantzitsuak direla bultzatzen ari zareten borrokak (austeritatearen aurka, merkataritza libreko itun berrien kontra, sindikatuen kontrako erasoen aurka...).

Horregatik, ez naiz eskatzen ari ezer bazterrera utz dezazuen.

### **Klima-aldaketan dago eskatzen dugun guztiaren muina**

Nire iritzian, klima-aldaketaren mehatxua dela eta are larriagoa da austeritatearen aurkako borroka, zerbitzu eta azpiegitura publikoak behar baititugu emisio poluitzaileak gutxitzeko eta etorkizuneko hondamendiei aurre egiteko.

Klima-aldaketaren aurkako borrokak biltzen du, izan ere, ezkerrek hainbat hamarkadaz aldarrikatu izan duen guztia, eta ez ditu bazterrera uzten beste gai batzuk.

Klimaren aldaketak are sendoago bihurtzen ditu gure eskakizunak, eta oinarri zientifikoa ematen die; ausart eta anbiziotsu izan behar dugula gogoratzen digu, eta oraingoan irabazi beharra daukagula gogorarazten, ezin baitugu jasan porrot gehiagorik. Bestalde, mundu hobe baten alde jardutera —azkar eta premiaz— bultzatzen gaitu.

Hau frogatzera natorkizue: klima-krisiari aurre egiteko, merkataritza libreko plan estrategikoaren arau guztiak urratu beharra daukagu, azkar asko gainera.

### **Aktibismo “klimatikoa” = ezkerren agenda**

Honenbestez, klimari buruzko aktibismo-plan bat aurkeztuko dizuet, labur. Nire planak ez du zerikusirik AEBko talde ekologista handi batzuek, merkatuak eraginda, proposatzen dituzten ergelkeria horiekin (bonbillak aldatzea, karbono-emisioen eskubide-trukea, emisio-murrizketa...). Mundu errealaiz ari gara hemen, gure emisioen izugarritzko hazkundearen zergatiaz.

Berehala ohartu zaretenez, ezagunak zaizkizue zenbait kontu. Zergatik? Bada, agenda honetako elementu gehienak zuen sindikatu berriaren helburuetan ageri direlako. Horrez gain, hor daude iraganeko zuen borroka guztiak ere.

---

---

Lehenik eta behin, eremu publikoa berrasmatu eta berpiztu egin behar dugu: emisioak murrizteko, metro-, tranbia- eta tren-egitura garbiak behar ditugu, noranahi eta merke eramaten gaituzten garraio-sistema publikoak.

Garraibide horiez gain, etxebizitza merkeak eta energiaren aldetik eraginkorra behar ditugu; energia berriztagarria elikatzen duten sare elektriko adimendunak behar ditugu; zaborrak biltzeko beste sistema bat behar dugu, ahalik eta hondakin kantitate txikiena uzten duen sistema bat.

Azpiegitura berriak ez ezik, inbertsio handiak behar ditugu lehendik daudenetan, etorriko diren hondakinei aurre egiteko.

Alor publikoaren etengabeko degradazioaren aurka borrokatu gara azken hamarkadetan, eta garbi ikusi dugu urtetako murrizketek ahulago bihurtu gaituztela hondamendi klimatikoekiko: ekaizte beldurgarriak dike kaskar batzuei ekiten; eurite gogorrek lakuetara hondakinak garraiatzen; suteak azkar hedatzen, suhiltzaileei soldatak eta langile-kopurua jaisten dizkieten bitartean; zubiak eta tunelak dardarka, eguraldiaren mende...

Alor publiko sendo baten alde borrokatzea galarazi beharrean, arazoaren muinera garamatza klima-aldaketak; oraingo honetan, gainera, arrazoi are tinkoagoekin. Kolektiboki jardutearen mende dago gure etorkizuna, ezin dugula egin hainbeste urtez esan diguten hori egitearen mende, alegia. Ba ote sindikatuak baino erakunde hoberik mezu hori zabaltzeko?

Arlo publikoaren berrikuntzak milioika lanpostu berri, ondo ordainduak, ekarriko ditu, Lurraren berokuntza-prozesua areagotzen ez duten sektoreetan gainera.

Baina, trantsizio handi horretan, lanpostu eta helburu berriak ez dira galdara-fabrikatzaileen, gasbide-instalatzzaileen eta muntaketa-kateetako langileen esku bakarrik izango.

Izan ere, gure ekonomiaren zenbait sektorek (oso handiak, gainera) ez dute apenas ingurumena kutsatzen. Sektore horiek ari dira jasaten, hain zuzen ere, eraso eta murrizketarik gogorrenak. Emakumezkoak, emigrantek eta beltzak dira nagusi lanbide horietan.

Hor daude, bestalde, hedapen masiboa behar duten sektoreak: zaindariak, hezitzaileak, zabor-biltzaileak eta zerbitzuen alorretako beste zenbait, zuen sindikatuak antolatuko dituela hitzeman duen horiexek, alegia. Karbono-emisio urriko sektoreetan dihardutenak, berriz, soldata duinen eta errespetuaren eske ari dira. Emisio urriko eta soldata eskaseko enpleguak ondo ordaindutako enplegu bihurtzea konponbide klimatiko bat bada, berez, eta halakotzat aldarrikatu behar da.

Nire ustez, AEBko fast foodaren (janari azkarra) sektoreko langileak eta aurreko astean egin dituzten greba historikoak hartu behar ditugu inspira-

zio-iturri, nola antolatu behar dugun erakusten ari zaizkigu eta. Beharbada, benetako soldatak eta benetako janaria lortzeko lehen matxinada izan da, non langileen osasuna eta gizartearena elkarri estu lotuta azaldu zaizkigun.

Espero dut argi azaldu izana ez naizela aldarrikatzen ari “enplegu ekologikoen” programatxoaren bat edo antzeko ezer. Iraultza laboral berde bati buruz ari naiz, neoliberalismoak azken 30 urteotan gure herrian eragin dituen hondamendiak sendatzeari eta, bide batez, gure Lurra osatzeari buruz.

Ekologistek ezin dute gidatu, eurek bakarrik, iraultza hori. Bestalde, inongo alderdi politikok ez dio ekin desafioari. Zuei dagokizue eginkizun hori.

### **Nola ordaindu**

Iritsi da, bada, galdera nagusia: “Nola ordaindu behar dugu hori guztia?” Dirurik ez dago, ezta? Hala dio behintzat gobernuak etengabe...

Desafioaren tamaina ikusirik, ordea, dirurik ez dugula esateak ez digu ezer konpontzen. Badakigu beti aurkitzen dela dirua bankuak salbatzeko edo gerraren bat hasteko. Beraz, dirua dagoen lekura jo behar dugu. Non dagoen dirua? Erregai fosilen enpresetan, eta haiek finantzatzen dituzten bankuetan. Izugarritzko irabaziak izaten dituztenez, horren zati bat hartu behar dugu, eurek antolatu duten hondamendia konpontzen lagun diezagun. Kontzeptu erraza da, legeak garbi asko ezarria: “Kutsatzen duenak, ordaindu egin behar du”.

Badakigu ez dugula dirurik eskuratuko erregaia erauzten jarraitzen badugu. Hortaz, erregai fosilekiko mendekotasuna murriztu ahala, GUTXIAGO erauziko dugunez, IRABAZI GEHIAGO eskuratu beharko dugu.

Bide asko daude horretarako: karbonoaren gaineko zerga nazional bat, eta royalty handiagoak, adibidez; finantza-eragiketen gaineko zerga bat ere oso lagungarri litzateke, edo sozietateen gaineko zergaren igoera orokorra.

Izan ere, horrelakoetan, irtenbide bakarrak ez dira izaten zangak irekitzea eta gasbideak jartzea.

Hona hemen adibide bat: CCPak duela gutxi eginiko ikerketa batek elkarrekin alderatu ditu bost mila milioi dolarreko gasbide bat —Enbridge

---

---

Gateway, esate baterako— eta dirutza berak garapen ekonomiko ekologikoan inbertituta duen balioa.

Dirua gasbide batean gastatuz gero, batez ere eraikuntzan sortzen dira enpleguak, epe laburrekoak; sektore pribatuak irabazi handiak izaten ditu, eta sektore publikoak gastu handiak, ingurumenak gerora jasango dituen kalteak direla eta.

Diru hori garraio publikoan, eraikinak eraberritzen eta energia berriztagarriko sistemak eraikitzen gastatzen bada, berriz hiru aldiz enplegu gehiago sortzen dira, eta, jakina, etorkizun seguruagoa. Ikerketa horren arabera, benetako enplegu-kopurua askoz handiagoa ere izan liteke. Hipotesi baikorrenaren arabera, inbertsio “berdeak” gasbide baten eraikuntzak baino 34 aldiz enplegu gehiago sor dezake.

Baina, nondik atera bost mila milioi dolar inbertsio publikorako? Aski litzateke karbonoaren gaineko zerga nazional bat (hamar dolar tonako) urtean beste bost mila milioi dolar eskuratzeko. Hartara, aurkeztu dugun kasua, Embridgekoa, ez litzateke adibide isolatu bat izango.

Northern Gatewayeko proiektuei eta antzekoei ezetz esateaz gainera, ekologistek (neu ere tartean naizela, oraingoan) irmoki egin behar dute gure konponbideen alde, azpiegitura berdeak eraikitzeko eta finantzatzeko gure proposamenen alde.

Alternatiba horiek dotore geratzen dira idatzita, paperean, baina, mundu errealean, ideologia nagusiarekin egiten dute talka, bete-betean. Ideologia horrek dio ezin zaizkiela zergak igo enpresei, ezin zaiela ezetz esan inbertsio berriei, eta, gainera, ezin dugula erabaki nolako ekonomia nahi dugun, merkatuaren hagatxo magikoaren esku utzi behar baitugu hori.

Baina ikusi dugu nola kudeatzen duen krisia sektore pribatuak, eta adarretatik heldu behar diogu. Alor publikotik kudeatu behar da trantsizio hori, osorik kudeatu ere, hasi energia-enpresa estatal berrietatik eta boterearen, azpiegituren eta inbertsioaren birbanaketa izugarria egin arte.

Energia-sistema deszentralizatu bat behar dugu, guztion ongiaren arabera kudeatua eta demokratikoki kontrolatua. Gure agenda hau geroz eta gehiago da “demokrazia energetiko” bat. Ez da berria ideia hori alor sindikalean. Gure artean da gaur Sean Sweeney, Cornelluko Unibertsitateko Global Labor Institutetokoa; horrez gain, zenbait sindikatu jator (CEP ere barnean dela) aspalditik ari dira agenda hori jorratzen. Heldu da hemen, Kanadan, demokrazia energetikoari ekiteko garaia. “Power to the people” (Boterea, herritarrei!) goiburu ederra da.

Jakingo duzueenez, probintzia batzuetako gobernuak ahaleginak egin dituzte trantsizio berdean esku-hartze aktiboagoa izatearren, eta “energia zikina” areagotzeko presioei eusten saiatu dira.

Baina jokabide kezkarri bat sumatzen hasiak gara: auzitara eramateen dituzte neurri positiboak eta ausartenak hartzen dituzten probintziak.

Eta gatozen, honenbestez, klimari buruzko agenda egiazki aurrerakoi bat aztertzea.

## **Merkataritza**

Bada garaia behin betikoz bertan behera uzteko “merkataritza libreko itunak” deritzenak, eta besterik ez dela sinatzen ziurtatzeko.

Hamarkadak daramatzazue horren aurka borrokan, AEBrekiko merkataritza libreko lehen itunaren kontra CAWk hain sutu jardun zuenetik. Langileen eskubideak ezereztu egiten dituztelako (hemen eta atzerrian) aritu zarete itun horien aurka, abusuzko jardueri bidea libre uzten dietelako, eta korporazioei neurri kanpoko boterea ematen dietelako.

Arrazoi zenuten, zeuok uste baino gehiago gainera. Izan ere, enpresa-globalizazioak eta merkataritza librearen diskurtsoak, emisioen hazkuntza kontrolik gabea areagotzeaz gain, galarazi egiten digute klima-hondamenei aurre egiteko behar ditugun berariazko aldaketak egitea.

Hona hemen bi adibide labur.

Ontarioko energia berdearen plana ez da perfektua, ezta gutxiagorik ere, baina badu xedapen bat —oso egokia, nire ustez— “bertakoa erosi” dioena. Hori dela eta, Ontarioko eguzki- eta haize-energiako proiektuek lanpostuak eta etekinak eskaintzen dizkiete hango herritarrei eta herriei. Horra trantsizio egoki baten oinarritzko printzipioa.

Bada, Munduko Merkataritza Erakundeak erabaki du legez kanpoko dela neurri hori. CAWk koalizio bat osatu du jada, kontraerasoari ekiteko. Dena dela, beste politika berde batzuei ere antzeko oztopoak jarriko dizkiete korporazioek.

Beste adibide bat: Quebecen debekatu egin zuen fracking deritzona. Erabaki ausarta izan zen, eta bi gobernuak —elkarren segidan— egin dute bat harekin. Baina gas bilaketan aritzen den AEBko enpresa batek 250 milioi dolarreko konpentsazioa eskatu nahi dio Kanadari, Ipar Amerikako merkataritza libreko itunaren 11. artikulua urratzen duela eta debekuak, “St. Lawrence ibaiaren azpian petrolioa eta gasa bilatzearen zuloak egiteko eskubide preziatuak” baliatzea ez omen zaio uzten eta.

---

Pentsatzekoa zen. MMEeko agente batek duela hamarkada bat esan zuen erakunde horrek aurre egingo diela “berotegi-efektuko gasak murriztearren hartzen diren ia neurri guztiei”.

Merkataritzak edozertarako eskubidea duela uste dute fanatiko hauek, baita mundua beren nahierara erabiltzekoa ere. Bada, erokeria horri aurre egiteko inoiz argudioren bat izan baldin bada, klima-aldaketarena dugu guztietan onena.

Borroka-lerroak ez dira inoiz agertu guztiz argi, baina klima-aldaketarena dugu beste arrazoibide guztien gainerik baliatu beharrekoa merkataritza libre korporatiboaren aurka. Izan ere, gure herrien eta Lurraren osasuna garrantzitsuagoa iruditzen zait (pixka bat, bederen) irabazi likitsak izateko haien eskubide santua baino.

Argudio etikoez ari gara, eta ez dugu zertan itxaron gobernuek arrazoia noiz emango. Erregai fosilekin higitzen diren gailuak (autoak, traktoreak, hegazkinak...) egiten dituen lantegiren bat itxi nahi badu enpresaren bat, ez utzi horrelakorik egiten.

Egin dezagun mundu osoko langile asko (Grezian, Argentinan, Chicagon...) egiten ari direna: fabrikak okupatu ditzagun, bihur ditzagun langile-kooperatiba berde; kalera botatzeagatik emango diguten ordainsari triste hori negoziatzearekin ez gaitezen konforma: exijitu diezazkiegun gobernuei eta enpresei ekonomia berria jada eraikitzen hasteko behar ditugun baliabideak.

Tren elektrikoak direla nahiz parke eolikoak, bihur ditzagun lantegi horiek erakusleio ikasleentzat, pobreziaren aurkako ekintzaileentzat, ekologistentzat, Kanadako jatorrizko herritarrentzat... Egin dezagun denok bat ikuspegi horrekin.

Tresna bat da klima-aldaketa. Hartu eta erabili! Itxura batean ezinezkoa den hori aldarrikatzeko erabili!

Ez da lanpostuen aurkako mehatxu bat: lan duinaren kontzeptua hankaz gora jarri nahi duen logika baten aurkako giltza da.

Zer behar dugun ikuspegi hori gauzatzeko? Botere politikoa. Klima-hondamenari aurre egiteko premia eta jakintza izan ditzakegu botere horren oinarri.

Diskurtsoa aldarazi dezakegu, egiazki sinesten badugu aldaketa horiek behar-beharrezkoak ditugula hondamendi ekologiko bat saihesteko.

Merkatu libreko ekonomiaren atzaparretatik ihes egingo dugu, etengabe ari baitzaizkigu esaten gutxiago eskatzeko, gutxiago jasoko dugula, eta mintza gaitezen etikaz: nolako gizon-emakumeak izan nahi dugun, nolako mundua nahi dugun guretzat eta gure seme-alabentzat...

Elkarrizketa hortik bideratzen baldin badugu, estu eta larri ibiliko da Stephen Harper.

Azkenik, bera egingo dugu zerbitzatzen duen ideologia hilgarri horren erantzule, itxura hain aspergarri horren atzean ezkutatu izan duen ideologia horrena, alegia.

Horrela aldatuko da, hain zuzen ere, herri honetako indar-erlazioa.

Ekonomia-eredu arras desberdin baten bozeramaile bihurtzen bada UNIFOR, erantzunak eman behar dizkie langileek, pobreek eta Lurrak jasaten dituzten erasoei. Hartara, ez du hainbeste kezkatu beharrik izango epe luzera izango duen garrantziaz, gero hobe baten aldeko borrokaren lehen lerroan jardungo baita, eta beste guztiek (oposizioko alderdiak barnean direla) haren atzetik abiatu beharko dute, atzean geratu nahi ez badute.

### **Kanadako jatorrizko nazioak**

Aldaketa horren funtsezko osagaietako bat hau dugu: are irmoago bihurtuko du Kanadako jatorrizko herriekiko aliantza. Lurraren eta baliabideen gainean herri horiek duten eskubidea (konstituzioak bermatua) da Harperren proiektuarentzako oztopo nagusia. Harperregatik balitz, Kanada osoa zulatuta legoke, erregaiak eta bestelakoak erauzteko.

Nire adiskide batek —Clayton Thomas Mueller— dio: “Pentsa zer gertatuko litzatekeen langileek eta Kanadako jatorrizko herriek beren indarrak egiazki batuko balituzte koalizio serio batean, lurraren legezko jabeak eta meategietan zein gasbideetan lan egiten dutenek, denek elkarrekin, beste eredu ekonomiko bat aldarrikatuko balute?”.

Hor ditugu, bada, gizakiak eta lurra, alde batean, eta kapitalismoaren etekin-gosea, bestean. Ez dakite ondo Harperren kontserbadoreek zer datorkien laster!

Baina aliantza estrategiko bat baino zerbait gehiago ere bada hau. Etengabeko baliabide-erauzketan oinarritutako Harperren Kanada horren alternatiba bat sortzen saiatzen garen bitartean, herri indigenen mundu-ikuskeratik zerbait ikastea komeniko litzraiguke. Ikuspegi horren arabera, hartzea soilik ez da aski: zaindu egin behar da emalea (Lurra) eta itzuli egin behar zaio jasotzen den horren hainbateko bat. Barregarriak dira bost urterako egiten diren planak: helduek zazpi belaunaldi geroago jartzen dute begirada. Behar dugun mundu-ikuskerak gogorarazi behar digu uste gabeko ondorioak ere badirela, dena baitago elkarrekin lotuta.

---



Behar ditugun koalizio irmo horiek eraikitzeko, gure borrokak elkarrekin uztartzen dituzten hariak bereizi behar ditugu lehenbizi eta, jakina, guztiak borroka BERA direla aitortu.

Amaitu aurretik, lagungarri izan dakigukeen hitz bat aipatu nahi dut: “gainkarga”.

## Gainkarga

Iragan udaren hasieran, asfalto-meatzeetan nenbilela, maiz pentsatu nuen horretaz. “Gainkarga” deitzen diote meatzaritzako enpresek “mineral-hobi bat estaltzen duen hondar-lurrari”. Bitxia da zeri deitzen dioten meatzaritzako enpresek “hondakina” edo “hondarra”, kontzeptu horretan sartzen baitituzte basoak, lur emankorra, harkaitzak, buztina..., hau da, euren eta erauzi nahi duten urre, kobre edo asfaltoaren artean dagoen edozer gauza.

Diruari enbarazu egiten dion bizitza da gainkarga. Zabortzat hartzen dute bizitza.

Errepide ondoan metatutako erauzitako lurraren piloei begira geundela, otu zitzaidan ez zela bakarrik basoa (ederra, boreala) enpresa horiek “gainkargatzat” zeukatena.

Denok gara gainkarga. Zalantzarik gabe, horrela ikusten gaitu Harperren gobernuak.

- Gainkarga dira sindikatuak, lortu dituzten eskubideak oztopoa baitira diru-gose aseezina dutenentzat.
- Gainkarga dira ekologistak, beti ari baitira jendea gogaitzen klimaldaketa eta petrolio-isurketak direla eta.
- Gainkarga dira herri indigenak, oztopo egiten baitiete haien eskubideek eta eskari legalek.
- Gainkarga dira zientzialariak, esan dizuedan guztia frogatzen baitute haien ikerketek.
- Gainkarga da demokrazia bera ere gure gobernuarentzat, dela ingurumen-ebaluazio batean parte hartzeko herritarren eskubidea, dela herriaren geroaz eztabaidatzeko parlamentuak duena.

Horra kapitalismoaren desarauketak sortu digun mundua, non den-dena baztertu eta xehatu daitekeen, eta, ondoren, zaborretara bota.

Baina badu “gainkarga” hitzak beste esanahi bat ere, xumeagoa: “karga astunegia eramatea; norbait edo zerbait azken mugaraino eramatea”.

Jasaten ari garen egoeraren deskribapen egokia, alajaina.

Gure azpiegiturei (oso hondatuak) galkarga berriak ezartzen zaizkie, aspalditik abandonaturik dauden arren; galkarga pairatzen dute gure langileek ere, makinak balira bezala tratatzen baitituzte nagusiek; galkarga jasaten dute gure kale eta aterpeek ere, haietan bizi baitira lanik gabe diren asko; atmosferak, berriz, isurtzen dizkiogun gasen galkarga pairatzen du.

Baina "Aski da!" oihuak entzuten hasiak gara, nonahi.

Milwaukeeeko fast food sektoreko langileei entzun diegu, iragan astean. Grebara jo zuten langileek, eta "Nik gehiago balio dut!" zioen pankarta baten atzean ibili ziren manifestariak. Desberdintasunari buruzko eztabaida nazional baten hasiera izan zen greba hura.

Quebeceko ikasleei ere entzun genien oihu hura joan den udan, "Ez!" esan baitzioten unibertsitate-tasen igoerari. Azkenik, gobernu bat erorarazi zuten, eta doako hezkuntzari buruzko eztabaida nazional bat abiarazi zuten.

Ingurumena eta indigenen eskubideak babesteko neurrien aurka Harperrek hartutako erabakiei "Ez!" esan zieten lau emakumeei entzun genien. "To be Idle No More" (Inoiz gehiago ez geldirik!) hitzeman zuten, eta indigenen eskubideen aldeko altxamendu bat piztu zuten Ipar Amerikan.

Lurrari berari ere entzuten diogu "Aski da!" oihukatzen, ahal duen beazala. Izan ere, edonon gogorazten digu bizitzak ez dela galkarga bat.

Konturatzen hasiak gara nahikoa izan dugula, nahikoa dugula.

Evo Moralesek dioenez, denok ondo bizitzeko adina badago munduan. Baina ez gutxi batzuk bakarrik geroz eta hobeto bizi daitezten.

Amaitzeko, zuen erakundearen araudiaren 2. artikuluko pasarte bat irakurriko dizuet. Aspalditik geunden horrelako hitz batzuen zain gutako asko. Beharbada, entzun dituzue gaur hitz hauek, baina merezi du errepikatzea:

"Eraldaketa da gure helburua. Denon interesa interes pribatuen gainetik jartzen dugu. Gure lantokiak eta gure mundua aldatzea dugu xede. Etorkizun izugarria dugu zain. Hona proposatzen dugun aldatetaren funtsa: berdintasunaren eta justizia sozialaren bidez aldatzea ekonomia, demokrazia berrezartzea eta sendotzea, eta ingurumen aldetik jasangarria den etorkizun bat eraikitzea.

Horra sindikalismo sozialaren oinarria: kultura sindikal aurrerakoa eta irmoa, eta Kanadako eta mundu osoko beste jende erakunde aurrerakoi batzuekin kausa beraren alde jarduteko konpromisoa".

---

---

Adiskideok, hau besterik ez dut gaineratuko: ez baduzu sinesten, ez ezazu esan!

Eraldaketan sinetsi beharra daukagu, izan ere.